# *Gai bati buruzko azalpena. Hitzaldia.* ***EBALUAZIO-ADIERAZLEAK***

| Maila eta hizkuntza | EBALUAZIO IRIZPIDEA ***Curriculumeko 3.a*** | ATAZA ***(proiektua; barruan, ataza anitz)*** | HAUTATUTAKO ADIERAZLEAK | EGOKITZAPENA (ikasleak ere auto-ebaluaziorako erabil dezake) |
|---|---|---|---|---|
| **4.DBH EUSKARA** | **3. Planifikatu ondoren, ikaslearen interesekoak diren egungo gertaerei edo curriculum-edukiei buruzko aurkezpen argiak eta ongi egituratuak egitea; horretarako, ikus-entzunezko baliabideen eta IKT teknologien laguntza baliatu ahal izango da.** | **Kirolak gizartean eta teknologian izan duen eragina aztertzeko, teknologiaren eta kirolaren arteko harremanari buruzko hitzaldia prestatu DBHko 1.mailako ikasleentzat**. | 3.1. Ea bilatzen eta hautatzen duen informazio esanguratsua, hainbat iturri erabiliz: analogikoak, ikus-entzunezkoak eta digitalak.<br>3.2. Ea informazioa logikaz egituratzen duen, komunikazio-asmoa kontuan hartuta.<br>3.3. Ea, ahozko testua antolatzean, testu-antolatzaile zehatzak eta askotarikoak erabiltzen dituen, testu zatiak elkarren artean lotzeko.<br>3.4. Ea erabiltzen dituen testuak ulergarri egiteko eta hartzaileak inplikatzeko estrategiak: ideiak errepikatzea, galdera erretorikoak egitea, erregistroz aldatzea, umorea agertzea...<br>3.5. Ea argitasunez adierazten den, eta, horretarako, zenbait alderdi kontuan hartzen dituen: egokitasuna, tonua, keinuak, gorputzaren jarrera, kortesia-arauak, koherentzia, zuzentasuna, hitz-jarioa eta ahoskera argia.<br>3.6. Ea behar besteko autonomia ageri duen zeregina planifikatzean eta egitean.<br>3.7. Ea, ahozko aurkezpenak egiten laguntzeko, ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak eraginkortasunez erabiltzen dituen.<br>3.8. Ea saihesten dituen erabilera baztertzaileak, eta bilatzen dituen hizkuntzazko beste alternatiba batzuk.<br>3.9 Ea erabiltzen dituen autoebaluazio- eta autozuzenketa-estrategiak, ahozko erabilera hobetzeko.<br>3.10... | ***Azalpena burutu du(t) eta gai izan da (naiz) ondokoak egiteko:***<br>1. Informazio esanguratsua eta baliagarria bilatzeko eta hautatzeko, hainbat iturri erabiliz.<br>2. Irakasleak emandako lanerako gidoia jarraitzeko.<br>3. Talde lanean, esapide diskriminatzailerik ez erabiltzeko.<br>4. Talde lanean, besteen iritziak entzun eta onartzeko<br>5. Talde lanean gogotsu parte hartzeko.<br>6. Planifikazioan azalpenaren helburua, hartzaileak zein diren eta gaia kontuan hartzeko.<br>7. Ideiak argitasun eta erraztasun nahikoz aurrez prestatutako gidoian adierazteko, egoerari dagokion erregistroa erabiliz…<br>8. Testua ondo antolatzeko.<br>9. Gidoian idatzitakoa buruz ez errepikatzeko, kontatzeko baino.<br>10. Azalpena egitean komunikazio arauak errespetatzeko (jarrera, keinuak, hartzaileei zuzentzea...).<br>11. Azalpena hasi, mantendu eta amaitzeko.<br>12. Behar bezala intonatu eta ahoskatzeko.<br>13. Ahotsa eta gorputz jarrera ondo kontrolatzeko.<br>14. Ahozko testu ulerterraza eta laburra sortzeko<br>15. Azalpenari laguntzeko ikusizko euskarriak erabiltzeko.<br>16. Zerbait gaizki esatean, zuzenketa egiteko.<br>17. … |

## Ahozko azalpena

| Maila eta hizkuntza | EBALUAZIO IRIZPIDEA *Curriculumeko 3.a* | ATAZA | HAUTATUTAKO ADIERAZLEAK | EGOKITZAPENA (ikasleak ere auto-ebaluaziorako erabil dezake) |
|---|---|---|---|---|
| **4.DBH EUSKARA** | **Planifikatu ondoren, ikaslearen interesekoak diren egungo gertaerei edo curriculum-edukiei buruzko aurkezpen argiak eta ongi egituratuak egitea; horretarako, ikus-entzunezko baliabideen eta IKT teknologien laguntza baliatu ahal izango da.** | **Ahozko azalpena egitea DBHko 1. mailako ikasleentzat** | 3.4. Ea erabiltzen dituen testuak ulergarri egiteko eta hartzaileak inplikatzeko estrategiak: ideiak errepikatzea, galdera erretorikoak egitea, erregistroz aldatzea, umorea agertzea...<br>3.5. Ea argitasunez adierazten den, eta, horretarako, zenbait alderdi kontuan hartzen dituen: egokitasuna, tonua, keinuak, gorputzaren jarrera, kortesia-arauak, koherentzia, zuzentasuna, hitz-jarioa eta ahoskera argia.<br>3.6. Ea behar besteko autonomia ageri duen zeregina egitean.<br>3.7. Ea, ahozko aurkezpenak egiten laguntzeko, ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak eraginkortasunez erabiltzen dituen.<br>3.8. Ea saihesten dituen erabilera baztertzaileak, eta bilatzen dituen hizkuntzazko beste alternatiba batzuk.<br>3.9 Ea erabiltzen dituen autozuzenketa-estrategiak.<br>3.10... | ***Azalpena burutu du(t) eta gai izan da (naiz) ondokoak egiteko:***<br>1. Esapide diskriminatzailerik ez erabiltzeko.<br>2. Ideiak argitasun eta erraztasun nahikoz adierazteko aurrez prestatu dudan gidoiaren arabera, egoerari dagokion erregistroa erabiliz…<br>3. Azalpena aurrez antolatuta, gidoia, izateko.<br>4. Azaltzean hartzaileak zein diren kontuan hartzeko.<br>5. Azalpena ulergarri egiteko eta hartzaileak inplikatzeko estrategiak erabiltzeko, esaterako, ideiak errepikatzea, galdera erretorikoak egitea, erregistroz aldatzea, umorea agertzea...<br>6. Gidoian idatzitakoa buruz ez errepikatzeko, kontatzeko baino.<br>7. Azalpena egitean komunikazio arauak errespetatzeko (jarrera, keinuak, hartzaileei zuzentzea...).<br>8. Azalpena hasi, mantendu eta amaitzeko.<br>9. Behar bezala intonatu eta ahoskatzeko.<br>10. Ahotsa eta gorputz jarrera ondo kontrolatzeko.<br>11. Ahozko testu ulerterraza eta laburra sortzeko<br>12. Azalpenari laguntzeko ikusizko euskarriak erabiltzeko.<br>13. Zerbait gaizki esatean, zuzenketa egiteko.<br>14. … |